

KOSTUEN EGITURA

Enpresa aurrera ateratzeak kostuak ditu, kostuak aldakorrak edo finkoak izan daitezke, baina gure kasuan kostu guztiak finkoak dira, hau da, zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez direnak. Hauek ondorengoak dira.

- Bertan lan egingo dugun lokalaren alokairua:
 - Lehen bi urteetan, Uggasak utzita, 30€ hilabetean (argindarra, ura, alkilerria eta wifia barne) ordaindu beharko genituzke, hau da, 360€ urtean.
- Gure enpresaren publizitatea, herriko telebista eta herrian zehar kartelak jarritz egingo dugu.
 - Lehen urtean publizitatean egingo dugun inbertsioa, 850€.
- Gimnasioan makinak jarriko ditugu, elektrizitatea gordetzen duten makinak, zintak, eliptikak, bizikletak eta arraun egiteko makinak.
 - Makina hauetan egingo dugun inbertsioa, 25.000€
- Pisuak altxatzeko makina normalak ere jarriko ditugu, hauek, beste gimnasioetan egoten direnak bezalakoak izango dira.
 - Makineta hauetan egingo dugun inbertsioa, 15.000€
- Makinetaz aparte, gimnasioan beste hainbat baliabide jarri beharko ditugu, esterillak, eseritzeko bankuak...
 - Baliabide hauetan egingo dugun inbertsioa, 5.000€
- Enpresa aseguratzeako aseguru enpresa batekin hitz egin dugu eta akordio batetara iritsi gara, Lagun Arorekin:
 - Enpresa aseguratzea kostatuko zaiguna: 1200€ urtean (100€ hilabetean).
- Laboral kutxa bankuan, mailegu bat ere eskatu beharko dugu enpresarekin hasi behar izateko, 10.000€ , ondoren %2,5 interesak ordaindu beharko ditugu.
- Hasieran agian gure soldata txikiagoa izatera behartuta egongo gara, lehenengo hilabetetan, soldata, hilabeteko eta partaideko 1000€ ingurukoa izango da, hau da, 60.000€ urtean.

Kostu finko guzti hauen batura 116.560€koa da, diru hau beharko du

Gure kalkuluen arabera, 164.400€ko irabaziak edukiko ditugu urtean. Zifra honi lehen urteko gastu guztiak kentzen badizkiogu 116.560€, 47,840€ko irabazi garbiak edukiko ditugu urtean. Beraz, gure enpresa oso bidegarria

dela esan ahalko genuke, nahiz eta bigarren urterako gure helburua irabazi garbiak askoz altuagoak izatea da.